

TOUCH HD

Instalazio Gidaliburu Azkarra

Euskaltelek itzultako eta
ekoiztutako eskuliburua



Mesedez, irakur ezazu hau jarraitu aurretik

GAILUA KAXATIK ATERATZEN DUZUNEAN, EGIAZTATU BATERIA EZ DAGOELA KARGATUTA.

EZ KENDU BATERIA-PAKETEA GAILUA KARGATZEN ARI DELA. BERMEA BALIORIK GABE GERATUKO DA, GAILUAREN KANPOKO KARKASA IREKITZDEN EDO MANEIAITZEN BADUZU.

PRIBATUTASUNAREN MUGAK

Herrialde batzuetan, telefono bidezko elkarrizketa guztiak agertu behar dira, eta, erabakita dagoenez, hitz egiten ari den pertsonari jakinarazi behar zaio elkarrizketa grabatzen ari direla. Kasu egin zure herrialdean indarrean dauden legeei eta erregulazioei, zure PDA telefonoaren grabatzeko-ezaugarria erabiltzen duzunean.

Erantzunkizunik eza

EGURALDIARI BURUZKO INFORMAZIOA, BESTE DATU BATZUK ETA DOKUMENTAZIOA “BERE HORRETAN” EMATEN DIRA, HTC-K INOLAKO BERMERIK EDO INOLAKO LAGUNTZA TEKNIKORIK EMAN GABE. INDARREAN DAGOEN LEGERIAK ONARTZEN DUEN NEURRIAN, HTC-K ETA HAREN FILIALEK berariaz bazterten dute berme esplizitu edo inplizitu oro, lege-eremuan nahiz bestelakoetan, meteorologia-informazioari, datuei zein beste agiri batzuei, eta beste produktu edo zerbitzu batzuei dagokienez. Era berean, ez du onartuko batere komertzializazio-berme inplizitu zein espliziturik; ez du hauetarako berme inplizitu zein espliziturik onartuko: helburu jakin bati egokitzea, urraketarik ez eragitea, kalitatea, zehaztapena, osotasuna, eraginkortasuna, fidagarritasuna, erabilgarritasuna, eta meteorologia-informazioak, datuek eta bestelako agiriak akatsik ez izatea; eta ez du onartuko, azkenik, jardueraren zein horren errendimenduaren ondoriozko berme inpliziturik.

Aipatutako en kalterik gabe, HTCK eta haren hornitzaileek ez dute beren gain hartzen zuk meteorologia-informazioarekin, datuekin eta/edo agiriekin egiten duzun erabilerraren edo erabilera okerraren nahiz erabilera horren ondorioen erantzukizunik. HTCK eta haren hornitzaileek ez dute bermerik eskainiko (ez inpliziturik ez espliziturik), ezta hitzarmenik edo baieztapenik eman ere, meteorologia-informazioa iragarpenen, datuen eta eskuratutako informazioaren arabera gertatzeari buruz. Alde horretatik, ez dute inorekin ez inolako entitatearekin betebeharririk edo erantzukizunik beren gain hartuko (horiek parte izan ala ez), gertatu diren edo gertatuko diren eguraldiari eta iragarritako ekitaldiei buruz emandako informazioan funsgabetasunak, zehaztugabetasunak edo hutsegiteak egiten badira. AIPATUTAKOAREN IZAERA OROKORRA IZAKI, ARGI ADIERAZTEN DA METEOROLOGIA-INFORMAZIOA, DATUAK ETA/EDO AGIRIAK ZEHAZTUGABEAK IZAN LITEZKEELA; HALAKOETAN, INFORMAZIO, DATU ETA DOKUMENTU HORIETAKO INFORMAZIOAREN GAINEKO SEGURTASUN-NEURRIEI DAGOKIENEZ, ZENTZUZ JOKATUKO DA, ETA ESTANDARREI JARRAITUKO ZAIE.

Kalteak mugatzea

LEGERIAK ONARTZEN DUEN NEURRIAN, HTC-K ETA HAREN HORNITZAILEEK EZ DUTE INOLAZ ERE BERE GAIN ERANTZUKIZUNIK HARTUKO, ERABILITZAILEAK EDO HIRUGARRENEK ZEHARKAKO KALTEA, KALTE BEREZIA, ZERBAITEN ONDORIOZKOA, OHARKABEKOA EDO ZIGORGARRIA ERAGITEN BADUTE (KONTRATUAN EDO KONTRATUTIK KANPO ZEHAZTUTA); KALTEEZ BESTALDE, EZ DIRA EGOERA HAUEN ERANTZULE IZANGO: DIRU-GALERA, ONDASUN-GALERA, AUKERA KOMERTZIALEN GALERA, DATU-GALERA ETA/EDO MOZKIN-GALERA (ENTREGATZEA, EGINBEHARRAK EZ BETETZEA EDO, AURREIKUSPENAK AURREIKUSPEN, HEMEN ZEHAZTUTAKOAREN ARABERA METEOROLOGIA-INFORMAZIOAREN, DATUEN ETA AGIRIEN ERABILERRAREKIN NOLABAIT LOTUTA EGON DAITEZKE EDO HORIEN ONDORIO IZAN).

Edukia

1. Ongi etorri HTC Touch HD™-ren instalazio gidaliburu azkarrera.....	6
2. Zer dago kaxan.....	6
3. Ezagutu zure HTC Touch HD™ gailua	7
4. SIM txartela, bateria eta memoria-txartela instalatzea.....	8
5. Bateria kargatzea.....	10
6. Lehen urratsak	10
7. TouchFLO™-ren 3D pantaila nagusia	11
8. Lehen deia egitea	13
9. Bideo-dei bat egitea	14
10. Informazioa sartzea.....	15
11. Oinarrizko konfigurazioa.....	16
12. Gogoko kontaktuak gehitzea.....	19
13. Testu-mezua bidaltzea.....	20
14. MMS mezua bidaltzea.....	21
15. Wi-Fia erabiltzea.....	21

16. Interneteko postako kontu bat konfiguratzeara.....	22
17. Internet mugikorra.....	24
18. Bluetootha	25
19. Hitzorduen jarraipena.....	26
20. Zereginen jarraipena	26
21. Argazkiak ateratzea eta bideoak grabatzea.....	27
22. Argazkiak eta bideoak ikustea.....	28
23. Gailua eta ordenagailua konektatu	29
24. Gailua ordenagailuarekin sinkronizatzea	30
25. Zure gailuan fitxategiak kopiatzea.....	31
26. Musika fitxategiak sinkronizatzea.....	31
27. Musika entzutea	32
28. Gailua leheneratzea	33

1. Ongi etorri HTC Touch HD™-ren instalazio gidaliburu azkarrera

Zorionak HTC Touch HD gailua erosteagatik.

Instalazio Gidaliburu Azkar honek Windows Mobile® 6.1 Professional gailuaren erabileraren berri izaten lagunduko dizu. Instalazio Gidaliburu Azkar hau paketea irekitzen denetik aurrera antolatu dago eta, gailua lehen aldiz pizten duzunean, ezagutu behar dituzun funtzio guztiak azaltzen ditu.


Erreferentzia osatuagoa izan dezazun, ikus gailuarekin batera emandako Aplikazioko diskoan datorren **Manual de usuario en PDF**. Diskoak gailuan instalatu daitezkeen zenbait programa ere baditu.

2. Zer dago kaxan?

Elementu hauek egon beharko lukete kaxan.

- HTC Touch HD ukipen-gailua
 - Bateria
 - Korrante altxatzen egokigailua
 - Entzungailu estereo kableduna
 - USB sinkronizazio-kablea
 - Kutxatila
 - Pantaila-babesa
 - Instalazio Gidaliburu Azkarra
 - Sarrera-diskoak eta aplikaziokoak
 - Arkatz gehigarria
 - 8 GBeko MicroSD™ txartela
-

3. Ezagutu zure HTC Touch HD™ gailua™




4. SIM txartela, bateria eta memoria-txartela instalatzea

Itzali gailua SIM txartela, bateria eta memoria-txartela instalatu aurretik. Osagai horiek instalatzeko, atzeko tapa kendu behar duzu.


Atzeko tapa kentzeko

1. Ziurtatu gailua itzalita dagoela.
2. Heldu gailua bi eskuekin, aurreko panela behearantz dagoela.
3. Altxatu atzeko tapa hatzarekin, gailutik erabat askatu arte, eta, gorantz lerratuta, kendu.




SIM txartela instalatzeko

1. Ziurtatu gailua itzalita dagoela.
2. Bilatu SIM txartelaren zirrikitua; sartu SIM txartela urre koloreko kontaktuak behearantz dituela eta moztutako erpina zirrikituaren kanpoalderantz.
3. Kendu erabat SIM txartela zirrikitutik.



Bateria instalatzeko


1. Parez pare jarri bateriaren kanpoko kobrezko kontaktuak eta bateriaren konpartimenduko konektoreak.
2. Sartu lehenik bateriaren beheko aldea, eta, ondoren, jarri kontuz dagokion tokian.
3. Atzeko tapa ordeztzea.



MicroSD™ txartela instalatzeko

Bilatu memoria-txartelaren zirrikitua; sartu microSD txartela urre koloreko kontaktuak beherantz dituela, bere tokian jarrita dagoela adierazten duen klik-a entzun arte.

Oharra MicroSD txartela kentzeko, berau sakatu zirrikitutik ateratzeko.



Gailutik nola atera/ordezkatu , erabiltzailearen eskuliburua eta sarrera diskoa ikusi.

5. Bateria kargatzea

Bateria berriak zertxobait kargatuta etortzen dira. Gailua erabiltzen hasi aurretik, komeni da bateria kargatzea.

Bateria kargatzeko


1. Korrante alternoaren egokigailuko USB konektorea akoplatu zure gailuko behe aldeko sinkronizazio-konektoreari.
2. Bateria kargatzen hasteko, konektatu korrante alternoaren egokigailua hartune elektrikora. Bateriak kargatzeko gutxi gorabehera 3 ordu behar ditu.

6. Lehen urratsak

Bateria sartu eta kargatu ondoren, gailua pizteko eta erabiltzeko moduan dago.

Gailua pizteko

1. Sakatu ENERGIA botoia.
2. Bizkor hasteko laguntzaile batek Pantaila kalibratzen eta eskualdeko konfigurazioa, data, ordua eta pasahitza egokitzen lagunduko ditu. Pantailako argibideak jarraitu. Bizkor hasteko laguntzaileak amaituta, gailuak konfigurazio pertsonalizatua instalatuko du, eta berrabiatu egingo da.



Datu konexioa automatikoki konfiguratzea

Gailua berrabiarazi ondoren, datu konexioak automatikoki konfiguratzea nahi duzun galdetuko dizu.

Konfigurazio prozesurako pantailako argibideak jarraitu, 3G/GPRS, MMS eta WAP doikuntzak eskuz egin beharrik ez izateko. Konfigurazioa amaitzen duenean, sakatu **Reiniciar**.



7. TouchFLO™-ren 3D pantaila nagusia

Gailuaren pantaila nagusia TouchFLO-ren™ pantaila nagusia da, eta ukipen bidez sar zaitzake gehien erabiltzen dituzun funtzioetan (jendea, mezuak, posta elektronikoa, eta abar).

TouchFLO 3D pantaila nagusian fitxa hauek daude, bestek beste:



Hasiera



Kontaktuak



Argazkiak eta bideoak

Pantaila nagusian fitxa batetik bestera aldatzeko

Hau egin:

- Pantaila nagusian, sakatu edo ukitu nahi duzun fitxa.
- Sakatu nabigazio-tekla eskuinean edo ezkerrean, hurrengo fitxara edo aurrekora joateko.
- Sakatu hatzarekin aktibatutako fitxa segundo batzuetan; ondoren, lerratu hatza fitxen gainetik, ezkererantz edo eskuinerantz. Nahi duzun fitxa hautatutakoan, altxatu hatza.





Oharra Tekla segundo batzuetan sakatzen duzunean, egin presio pixka bat, fitxen gainetik lerratu ahal izateko.

Instalazio Gidaliburu Azkar honetako ondorengo atalek pantaila nagusiko fitxak erabiltzen azalduko dizute. 3D TouchFLO-ren gaineko informazio gehiago behar baduzu, ikusi Erabiltzailearen Eskuliburua eta sarrera diskoa.

8. Lehen deia egitea

1. Pantaila nagusian, ukitu **Teléfono**.
2. Ukitu zenbakien teklak eta sartu telefono-zenbakia.

Aholkua Okerreko zenbakia sakatzen baduzu, ukitu  zenbakiaren digituak banaka ezabatzeko. Zenbaki osoa ezabatzeko, sakatu  zenbait segundotan.

3. Deia egiteko, sakatu **Lllamar** .

Aholkua Deiak iraun bitartean telefonoaren bolumena doitu nahi izanez gero, erabili IGO/JAITSI BOLUMENA botoiak (gailuaren albo batean).

4. Deia amaitu nahi duzunean, ukitu Finalizar llamada edo sakatu FINALIZAR botoia.



Deiei erantzutea edo deiak ez onartzea

Telefono-dei bat jasotzen duzunean, mezu bat agertuko da pantailan, eta deiarri erantzuteko edo deia ez onartzeko aukera emango dizu.

Deiari erantzuteko

HABLAR/ENVIAR botoia sakatu.

Deia ez onartzeko

FINALIZAR botoia sakatu.

Txirrinaren soinua kentzeko

Deia onartu arren, txirrinaren soinua kendu nahi baduzu, ukitu **Silenciar tono** pantailaren esku-bikoa behe aldean.


Deia ez onartzeko eta testu-mezua bidaltzeko

Deia ez onartzean, aukera duzu deitu dizun pertsonaren mugikorrera testu-mezua automatikoki bidaltzeko.


Oharra **Rechazar llamada con mensaje de texto** aukera gaitzeko, ikusi Erabiltzailearen Eskuliburua sarrera diskoan.

9. Bideo-dei bat egitea

Hau egin:

- Telefonoaren teklatuan, ukitu deitu nahi duzun telefono-zenbakia, eta, ondoren, ukitu Menú > Videollamada, bideo-deiari ekiteko.
- Telefonoaren teklatuan, ukitu deitu nahi duzun telefono-zenbakia, ukitu , eta, ondoren, ukitu **Videollamada**.
- Kontaktuetan, ukitu segundo batzuetan nahi duzun kontaktua, eta, ondoren, ukitu Videollamada.
- Deien historian, ukitu segundo batzuetan nahi duzun telefono-zenbakia edo kontaktua, eta, ondoren, ukitu Videollamada.


Oharra Konexioa egin eta 3-5 segundoren buruan (seinalearen indarraren arabera), beste pertsonaren irudia agertuko da. Transferitutako irudiaren kalitatea ere desberdina izan daiteke seinalearen arabera.



Bideo-deiaren doikuntzak aldatzea

Teléfono pantailan edo abian den bideo-deiaren pantailan, sakatu **Menú > Opciones de videollamada**, eta bideo-deien General eta Servicios aukerak konfiguratu ditzakezu.

Oharra Bideo-dei bat egiten ari zaren bitartean, zenbait doikuntza alda ditzakezu: irudiaren neurria, bideo-irudiaren distira, erabiltzeko kamera, etab. Informazio gehiago Erabiltzaileen Eskuliburuan.



10. Informazioa sartzea

Testua idatzi behar duzunean, hautatu ezazu aukeran dauden testua sartzeko metodoen artean. Hona hemen zenbait adibide.



QWERTY
oso

Teklatuaren behe
aldeko Nabigazio-
kontrolako teklak
ukitu norabidea
kontrolatzeko.

Ukitu idazteko beste
modu bat aukeratzeko.



QWERTY trinkoa

Testua idazteko, ukitu pantailako teklatuan. Aukeratu duzun teklatuaren arabera, behin baino gehiagotan ukitu beharko duzu tekla berdina nahi duzun karakterea idazteko.

Aholkua T9 moduan, **ESPACIO** tekla ukitu zerranda bateko lehen hitza aukeratzeko.

Idazteko metodei buruzko informazioa kontsultatzeko eta hauek nola erabili jakiteko, “Escribir texto” atala ikusi Erabiltzailearen Eskuliburuan.

11. Oinarrizko konfigurazioa

Gailuaren konfigurazioa pertsonalizatu dezakezu zure beharretara egokitzeko.

Txirrin-tonua

1. Sakatu HABLAR/ENVIAR telefonoaren pantaila irekitzeko eta ukitu **Menú > Opciones**.
2. Ukitu Tono de timbre, eta, ondoren, hautatu nahi duzun txirrin-tonua eta **Aceptar**.

Alarma

1. Pantaila nagusiko Inicio fitxan, ukitu orduaren pantailan.
2. Ukitu **Alarmas** fitxa.
3. Egiaztatze-lauki bat aukeratu. Sakatu <Descripción> eta sartu alarmaren izena testua aldatzeko.
4. Sakatu alarma jotzea nahi duzun egunetan.
5. Sakatu ordua, erlojua irekitzeko eta alarma-ordua konfiguratzeko.



Telefonoaren profila

Dei bat jasotzen duzanean gailuaren soinuaren doikuntzari profila deitzen diogu. Profila aukeratzeko:

1. Pantaila nagusiko **Configuración** fitxan ukitu **Sonido**.
2. Ondoko aukeren artean hautatu: **Normal**, **Vibrar**, **Silencio** edo **Automático**.

- Oharrak** • **Automático** aukerak gailua konfiguratzenn du Calendario aukeran programatutako hitzorduetan baino ez bibratzeko.
- Alarma konfiguratu baduzu eta **Vibración** edo **Silencio** profila hautatzen baduzu, ez duzu alarma entzungo berau itzaltzen denean. Alarmaren soinua gaitzeko, Perfiles de sonido pantailan **Sonido de alarma** aukera hautatu behar duzu.

Atzealdeko irudia

Atzealdeko irudia **Inicio** fitxan aukeratu dezakezu.

1. Pantaila nagusiko **Configuración** fitxan aukeratu **Tapiz**.
2. **Seleccionar una foto** pantailan, erabili nahi duzun argazkia dagoen karpetera joan. Nahi duzun argazkia aurkitzen duzunean, ukitu haren gainean fitxa nagusiaren atzealdeko irudi gisa jartzeko.

Gailua babesteko

Datuak seguruago izaten lagundu dezake, gailua pizten den bakoitzean pasahitz bat eskatuko baitu.

1. Pantaila nagusian, zoaz **Configuración** fitxaraino, eta, ondoren, ukitu **Todas las configuraciones**.
2. **Personal** fitxan, ukitu **Bloquear**.
3. Hautatu **Solicitar contraseña si el dispositivo lleva inactivo** egiaztatze-laukia, eta zehaztu telefonoa zenbat denboran egongo den inaktibo, gailuak pasahitza eskatu arte.
4. **Contraseña** laukian, aukeratu erabili nahi duzun pasahitz-mota.
5. Sartu eta baieztatu pasa-hitz berria, eta ukitu **Aceptar**.



SIM txartelaren PIN zenbakia

SIM txartelaren PIN zenbakia gaitzeko, aurretik PIN zenbaki bat aukeratu behar duzu, gailuko ezaugarriak erabiltzeko.

1. Pantaila nagusian, zoaz **Configuración** fitxaraino, eta, ondoren, ukitu

Todos las configuraciones.

2. **Personal** fitxan, ukitu **Teléfono > PIN/PIN2** fitxa.
3. **Requerir PIN cuando se utilice el teléfono** egiaztatze-laukia hautatu.
4. Sartu PIN zenbakia, eta, ondoren, ukitu **Aceptar.**

Atzeko argiaren eta bateria aurrezteko doitzeak

Bateriaren karga mantendu atzeko argia eta energia aurrezteko baloreak doitzuz.

1. Pantaila nagusian, zoaz **Configuración** fitxaraino, eta, ondoren, ukitu **Todos los configuraciones.**
2. **Sistema** fitxan, ukitu **Energía.**
3. **Retroiluminación** fitxan, desmarkatu **Ajuste automático de retroiluminación** egiaztatze-laukia eta ondoren atzeko argiaren distira konfiguratu, bateriaren energia eta kanpoko argindarra kudeatzen dituzten kontrol lerratzaileak erabilia.
4. **Avanzado** fitxan, atzeko argia noiz deskonektatu behar den eta, bateria eta kanpoko argindarra erabiltzen denean, gailuaren pantaila noiz itzali behar den konfiguratu. Ukitu **Aceptar.**

12. Gogoko kontaktuak gehitzea

Pantaila nagusiko **Contactos** fitxan gogoko 15 kontaktu sar ditzakezu. Horrela, gogoko kontaktuei deitu eta testu-mezuak edo posta elektronikoak bidali azkar asko egin ahal izango duzu.

Gogoko kontaktu bat gehitzeko

Zure gailuko kontaktu gogokoenak pantaila nagusiko **Contactos** fitxan gehitu aurretik, gailuko kontaktu zerrendan egon behar dira. Jarraitu ondorengo argibideak gailuan gordetzeko.

1. Ukitu **Inicio > Contactos**.
2. Ukitu **Nuevo > Contacto de Outlook**.
3. Idatzi kontaktuaren informazioa eta ukitu **Aceptar**.

Aholkua SIM txarteleko kontaktuak gogokoenetarako gehitzeko, lehenengo gailura kopiatu. Ukitu **Inicio > Programas > Administrador SIM**, ukitu **Menú > Seleccionar todo**, eta, ondoren, ukitu **Menú > Guardar en Contactos**. (SIM txarteleko kontaktuak kopiatu eta gero, hauek bikoiztuta agertuko dira **Contactos** fitxan ikusten dituzunean.)


Gogoko kontaktu bat gehitzeko

1. Pantaila nagusian lerratu **Contactos** fitxara.
2. Ukitu **Mas** ikonoa (handiago edo txikiago ager daiteke) edo sakatu **Agregar favorito**.
3. Kontaktua hautatzeko pantailan, sakatu nahi duzun kontaktuaren izena.
4. Hautatu telefono-zenbaki bat edo beste helbide elektroniko bat gogoko kontaktuari lotzeko.

Oharra Kontaktuari lotutako irudirik ez badago, hurrengo pantaila agertuko da, kontaktuari irudi bat esleitzeko.

Gogoko kontaktu bati deitzeko edota mezu bat bidaltzeko


1. Pantaila nagusian lerratu **Contactos** fitxara.
2. Mugitu hatza gorantz edo beherantz pantailan gogokoaren artean mugitzeko.
3. Kontaktuaren behe aldeko ikonoa ukitu deitzeko edota testu-mezua edo posta elektronikoko mezua idatzi eta bidaltzeko.

Oharra Azaldutako ikonoak kontaktuari buruzko informazioaren araberakoak dira. Adibidez, () agertuko da, kontaktuaren etxeko telefona zehatzuz gero.



13. Testu-mezua bidali

Idatzi eta bidali SMS testu-mezuak zure gailutik.

1. Pantaila nagusian zoaz **Mensajes** fitxara eta  sakatu.
2. **Para** eremuan, mezua hartuko duen pertsonaren telefonoaren zenbakia zehaztu.
Aholkua **Para** ukitu eta kontaktu zerrendatik aukeratu dezakezu.
3. Mezua idatzi eta ukitu **Enviar**.

14. MMS mezua bidaltzea

Rudiak, bideoak eta audioklipak dituzten multimedia-mezuak sortu eta bidali.


1. Pantaila nagusiko **Mensajes** fitxan, ukitu **Todos los mensajes**.
2. Ukitu **Menú > Nuevo > MMS** eta, ondoren, ukitu **Personalizado**.
3. **Para** eremuan, idatzi zuzenean hartzailearen telefono-zenbakia edo helbide elektronikoa eta **Asunto** barruan gaia idatzi.
4. MMS mezuaren atalak bete, horretarako ukitu **Insertar foto/vídeo**, **Insertar texto aquí** eta **Insertar audio**.
5. Ukitu **Enviar**.

15. Wi-Fia erabilzea

Haririk gabeko sare batera sarbidea izanez gero, Wi-Fia erabil dezakezu gailua Internetera konektatzeko.

Haririk gabeko sare batera konektatzeko

1. Pantaila nagusian, zoaz **Configuración** fitxara eta ukitu **Comunicaciones**.
2. Comm Manager pantailan, ukitu **Wi-Fi** haririk gabeko funtzioa aktibatzeko.
3. Orduan eskura dauden haririk gabeko sareen izenak bistaratuko dira. Aukeratu haririk gabeko sare ireki bat (ez-segurua) eta ukitu **Aceptar**.



Sare seguru batera konektatzeko informazio gehiago nahi izanez gero, “Internet” atala ikusi Erabiltzailearen Eskuliburuan.

16. Interneteko postako kontu bat konfiguratzeko


Konfiguratu internet bidezko posta zure gailuan, esaterako Gmail edo Yahoo! .

1. Pantaila nagusian, lerratu **Correo** fitxara eta ukitu **Nueva cuenta**.
2. Adierazi postako kontu pertsonaleko **Dirección de correo electrónico** eta **Contraseña**, eta, ondoren, hautatu **Guardar contraseña** egiaztatze-laukia. Ukitu **Siguiente**.
3. Gailuak posta elektronikoko kontuaren ezarpenak aurkitzen dituzenean ukitu **Siguiente**.



Posta elektronikoko zerbitzariaren ezarpenak gailuan aurkitu dira.

Posta elektronikoko zerbitzariaren ezarpenak EZ dira gailuan aurkitu.



Oharra Ezarpenak gailuan ez badaude, Internetera konektatu eta bertatik deskargatzen ahaleginduko da.

4. Osatu **Nombre** eta **Nombre para mostrar de la cuenta** aukerak, eta, azkenik, ukitu **Siguiente**.


Oharra **Nombre para mostrar de la cuenta** atalean adierazitako izena, pantaila nagusiko Correo fitxan ikusiko duzuna da.

5. Enviar y recibir automat. zerrendan, aukeratu zer maiztasunekin nahi duzun posta elektronikoko mezuak automatikoki bidaltzea eta gailuan deskargatzea eta, ondoren, ukitu **Finalizar**.


6. Aukeratu mezuak orain deskargatu nahi dituzun ala ez.

7. Kontu bat baino gehiago izanez gero, ukitu **Menú > Cuentas > Nueva cuenta Correo** fitxan eta errepikatu 2., 3., 4., 5. eta 6. urratsak.

Mezu elektronikoko bat bidaltzeko

1. Pantaila nagusiko **Correo** fitxan hautatu eskubialdean erabili nahi duzun posta elektronikoko kontua.
2. Ukitu  mezu berri bat sortzeko.
3. Hartzaitzailearen helbidea eta gai bat idatzi.
4. Mezua idatzi eta, ondoren, ukitu **Enviar**.


Oharra Posta elektronikoa erabiltzeko doikuntza eta ezaugarriak buruzko xehetasun gehiago behar izanez gero, Erabiltzailearen Eskuliburua ikusi.



17. Internet mugikorra

Opera Mobile-rekin webguneak arakatu eta mahaigaineko ordenagailua balitz bezala nabigatuko duzu. Zure gailuan **YouTube**-ko bideoak ere ikusi ditzakezu.

Opera Mobile

1. Pantaila nagusian, zoaz Internet fitxaraino, eta, ondoren, ukitu **Explorador** OperaMobile irekitzeko.
2. Helbide-barra ukitu, Web orrialdearen helbidea idatzi eta, ondoren, sakatu .
3. Irudia gerturatzeko, ukitu pantaila bi aldiz.

YouTube™

YouTube-rekin, You Tube-ko bideoak bilatu, ikusi eta markatu ditzakezu.

YouTube irekitzeko

Ukitu **Inicio > Programas > YouTube**.

Opera Mobile eta YouTube-ren erabilerari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, “Internet” atala ikusi Erabiltzailearen Eskuliburuan.



18. Bluetooth-a

Zure gailua Bluetooth entzungailu estereo batekin edota Bluetooth-erako gaitutako beste gailuekin konektatu.

Bluetooth entzungailu estereo batekin konektatzeko

1. Egiaztatu gailua zein Bluetooth entzungailuak piztuta daudela eta elkarrengandik gertu daudela, eta entzungailuan ikusgai daudela. Entzungailuak ikusgarri nola konfiguratzaren diren jakiteko, ikus egilearen dokumentazioa.
2. Pantaila nagusian, lerratu **Configuración** fitxaraino, eta, ondoren, ukitu **Menú > Dispositivos Bluetooth > Dispositivos** fitxa > **Agregar nuevo dispositivo**..
3. Ukitu Bluetooth entzungailuen izena, eta gero, ukitu **Siguiente**. Gailua automatikoki parekatuko da Bluetooth entzungailua duen gailuarekin.

Windows Mobile-k automatikoki probatuko du aurrez konfiguratutako pasahitzetako bat (0000, 8888) Bluetooth entzungailua gailuarekin parekatzeko. Lortzen ez badu, entzungailuekin emandako pasahitza eskuz sartu beharko da.

Beste Bluetooth gailuekin konektatzeko

1. Pantaila nagusian, lerratu **Configuración** fitxaraino, eta, ondoren, ukitu **Menú > Dispositivos Bluetooth > Dispositivos** fitxa.
2. Ukitu **Agregar nuevo dispositivo**. Irismenaren barruan dauden Bluetooth gailuen izena bistaratuko du gailuak.
3. Ukitu gailuaren izena koadroan, eta, ondoren, **Siguiente**.
4. Zehaztu pasahitz bat konexio segurua ezartzeko. Pasahitzak 1-16 karaktere bitartean izan ditzake. Ukitu **Siguiente**.
5. Itxaron, elkartzutako gailuak elkartzea onartzen duen arte. Hartzaileak ere zuk zehaztu duzun pasahitz bera idatzi beharko du.
6. Gero, parekatutako gailuaren izena agertuko da. Gailu horrentzat izen berri bat editatu eta idatzi daiteke.
7. Hautatu parekatutako gailuan erabili nahi dituzun zerbitzuen egiaztatze-laukiak, eta ukitu **Finalizar**.

Bluetooth erabilerari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, “Bluetooth” atala ikusi Erabiltzailearen Eskuliburuan.

19. Hitzorduen jarraipena

Erabili **Calendario** aukera hitzorduak gogoratzeko.

Hitzordua sortzeko

1. Pantaila nagusian, aukeratu **Inicio** fitxa eta, ondoren, ukitu **Calendario**.
2. Calendario aukeran, ukitu **Menú > Nueva cita**.
3. Pantailako teklatura erabili hitzorduen datuak idazteko.
4. Hitzorduen xehetasunak idatzi eta gero, ukitu **Aceptar**.

Hurrengo hitzordua pantaila nagusiko **Inicio** fitxan agertuko da.



20. Zereginen jarraipena


Erabili Tareas, zure betebeharrak kontrolatzeko.

Zereginen zerrenda sortzeko

1. Sakatu **Inicio > Programas > Tareas**.
2. Tareas aukeran, ukitu **Puntee aquí para nueva tarea** eta idatzi zereginaren izena.
3. Sakatu pantailako teklaturen ENTRAR botoia.


Aholkua Eremutik kanpo ere ukitu dezakezu zeregina sortzeko.

Zereginen ezaugarri aurreratuei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, 12. atala ikusi Erabiltzailearen Eskuliburuan.





21. Argazkiak ateratzea eta bideoak grabatzea



Erabili gailuaren 5,0 megapixelko kamera argazkiak egiteko eta bideoklipak grabatzeko.



Argazkia ateratzeko

1. Pantaila nagusian, zoaz **Fotos y vídeos** fitxara, eta, ondoren, ukitu kameraren ikonoa (). Pantailaren orientazioa automatikoki aldatzen da modu horizontalera, Cámara programa irekitzean.
2. Jarri gailua gizazemeari begira.
3. Sakatu **Cámara virtual** botoia  fokatze automatikoa aktibatzeko. Behin aktibatuta, kamerak automatikoki aterako du argazkia.

Bideoa grabatzeko

1. Pantaila nagusian, zoaz **Fotos y vídeos** fitxara, eta, ondoren, ukitu bideoaren ikonoa (). Pantailaren orientazioa automatikoki aldatzen da modu horizontalera, Cámara programa irekitzean.
2. Jarri gailua gizazemeari begira.
3. Sakatu **Cámara virtual** botoia  fokatze automatikoa aktibatzeko. Behin aktibatuta, kamerak automatikoki grabatuko du bideoa. Bideoaren grabazioa gelditzeko, sakatu berriz **Cámara virtual** botoia.

Kameraren beste kaptura modu eta funtzioei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, “Experimentar con multimedia” atala ikusi Erabiltzailearen Eskuliburuan.

22. Argazkiak eta bideoak ikustea


Argazkiak eta bideoak kamerarekin atera ondoren, **Fotos y vídeos** fitxan, argazkiak eta bideo-klipak begiratu eta pantaila osoan ikusteko aukera duzu.

Argazkiak eta bideoak esploratu

1. Pantaila nagusian zoaz **Fotos y Vídeos** fitxaraino.
2. Zure **Fotos y Vídeos** arakatu, hatza gorantz eta beherantz lerratuz erdiko pantailan.
3. Ukitu irudi bat edo bideo bat, pantaila osoaren moduan ikusteko.

Argazkiak pantaila osoan ikustean


Hatzaren mugimenduekin hurrengo/aurreko irudira mugitu edota irudia hurbildu/urrundu.



Hurrengo edo aurreko irudia ikusteko.



Lerratu hatza eskuinerantz puntu batean puntu hori hurbiltzeko.




Lerratu hatza ezkererantz, irudia urruntzeko.

Bideo erreproduzitzeko

Álbum programa erabili dezakezu Fotos y Vídeos ikusteko. Programa abiatzeko, ukitu **Inicio** > **Programas** > **Álbum**, edota ukitu **Álbum** pantailaren beheko ezker aldean **Fotos y Vídeos** fitxan. Álbum-aren erableari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikusi “Experimentar con Multimedia” atala Erabiltzailearen Eskuliburuan.

23. Gailua eta ordenagailua konektatu

Zure gailua ordenagailura USB kablearen bidez konektatzen duzunean, Conexión a PC agertuko da eta USB konexio mota aukeratzeko eskatuko dizu:



ActiveSync

Gailua eta ordenagailuaren artean informazioa eta fitxategiak sinkronizatu nahi duzunean.

Disko unitatea

Gailuak microSD memoria txartela duenean baino ez da aukeran egoten. Gailuaren memoria txartela eta ordenagailuaren artean fitxategiak azkar kopiatu nahi dituzunean erabiltzeko.

Konexio partekatua

Mahai gaineko ordenagailuak edo eramangarriak Interneterako konexioarik ez duenean, aukera honekin zure gailua ordenagailurako modem bezala erabili dezakezu. Konexio partekatuari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikusi “Internet” atala Erabiltzailearen Eskuliburuan.

24. Gailua ordenagailuarekin sinkronizatzea

Ordenagailua eta gailuaren arteko informazioa eta fitxategiak sinkronizatzeko aukera duzu.

Oharra Zure gailua eta ordenagailuaren artean zer informazio mota sinkronizatu daitekeen jakiteko “Sincronizar información con su ordenador” atala ikusi Erabiltzailearen Eskuliburuan.

Zure ordenagailuko sinkronizazio softwarea konfiguratu

Zure ordenagailuaren sistema eragilearen arabera, Microsoft ActiveSync® 4.5 bertsioa (edo ondorengoa) edota, Windows Mobile®-ren gailuen Zentroa, gailua eta ordenagailuaren sinkronizazioa sortzeko.

Windows XP duen ordenagailu batekin sinkronizatzeko

1. ActiveSync 4.5 instalatu zure ordenagailuan sarrera-diskotik.
2. Konektatu gailua ordenagailura USB kablearekin. Sinkronizazioa konfiguratzeko laguntzailea automatikoki abiaraziko da, eta hark gidatuko zaitu sinkronizazio-lotura bat sortzen. Segitzeko, sakatu **Siguiente**.
3. Desmarkatu **Sincronizar directamente con un servidor que ejecute Microsoft Exchange** egiaztatze-laukia eta sakatu **Siguiente**.
4. Hautatu sinkronizatu nahi duzun informazio-mota eta sakatu **Siguiente**.
5. Hautatu gailuan haririk gabeko konexioa gaitu nahi duzun ala ez, ordenagailura konektatuta dagoen bitartean. Sakatu **Siguiente**.
6. Sakatu **Finalizar**.

Windows Vista duen ordenagailu batekin sinkronizatzeko

1. Konektatu gailua ordenagailura USB kablearekin. Windows Mobile-ren gailuen Zentroa ireki egiten da. Sakatu **Configurar el dispositivo**.
2. Hautatu sinkronizatu nahi duzun informazio-mota eta sakatu **Siguiente**.
3. Idatzi gailurako izen bat, eta sakatu **Configurar**.

Sinkronizazioari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikusi “Sincronizar información con su ordenador” atala Erabiltzailearen Eskuliburuan.

25. Zure gailuan fitxategiak kopiatzea

MicroSD™ txartela instalatu dezakezu zure gailuan. Horrela, biltegi gehigarria izango duzu fitxategiak gordetzeko.

Ordenagailutik gailuaren memoria txartelera fitxategiak kopiatzeko

1. Konektatu gailua ordenagailura USB kablearekin.
2. Sakatu **Administración de archivos > Explorar el contenido de su dispositivo** Windows Mobile-ren gailuen Zentroan edo sakatu **Explorar** zure ordenagailuko ActiveSync-en. Jarraian, ordenagailuko Windows esploradorea irekiko da eta gailuko edukia bistaratuko da .
3. Arakatu zure ordenagailuaren karpetak, sakatu saguaren eskuineko botoia kopiatu nahi duzun fitxategiaren gainean, eta, gero, sakatu Copiar.
4. Ireki **Mi dispositivo móvil basado en Windows > Tarjeta de almacenamiento** eta ondoren, Sakatu eskuineko botoia zure gailuaren karpeta baten gainean, eta sakatu Pegar.

Multimedia fitxategiak ordenagailutik gailura kopiatzeko, Windows Media erreproduzitzailea erabiltzea gomendatzen da. Musika fitxategiak sinkronizatzeke Instalazio Gidaliburu Azkarraren hurrengo atala ikusi.


26. Musika fitxategiak sinkronizatzea

Musika fitxategiak sinkronizatu zure ordenagailuaren eta gailuaren artean, horrela nahi duzunean entzun ditzakezu.

1. Ordenagailuan, abiarazi Windows Media®-ren erreproduzitzailea, eta, gero, konektatu gailua ordenagailura.
2. **Configuración del dispositivo** elkarrizketa-koadroan, adierazi gailuarentzako izen bat, eta sakatu **Finalizar**.
3. Windows Media®-ren erreproduzitzailearen ezkerreko panelean, sakatu eskuin-botoiaz gailuaren izena eta, ondoren, **Configurar sincronización**.

Oharra Nahi baduzu memoria txartela ere sinkronizatu dezakezu, horretarako, sakatu **Tarjeta de almacenamiento** eskuin-botoia.


4. Hautatu ordenagailuaren eta gailuaren artean sinkronizatu nahi dituzun erreprodukzio-zerrendak, eta sakatu **Agregar**.
5. Sakatu **Finalizar**.




27. Musika entzutea

Musika fitxategiak sinkronizatu ondoren, pantaila nagusiko **Música** fitxa erabil dezakezu zure gailuan musika erreproduzitzeko.

Musika entzuteko

1. Pantaila nagusian lerratu **Música** fitxaraino.
2. Albumak edo albumeko abestiak ikusteko, mugitu gorantz edo beherantz pantailan, ondoren sakatu  bistaratuako abestia erreproduzitzen hasteko.

Música fitxaren erabilerari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikusi “TouchFLO 3D” atala Erabiltzailearen Eskuliburuan.




Sakatu hemen, aukeratuako albuma edo abestia erreproduzitzeko.

28. Gailua leheneratzea

Gailua astiroago dabilela somatzen baduzu, leheneratu dezakezu programa guztiak itxi eta gailua berrabiarazteko.

Para realizar un restablecimiento de software

1. Atera arkatza.
2. Kendu atzeko tapa.
3. Erabili arkatza RESTABLECER botoia sakatzeko. Botoia SIM txartelaren eta memoria txartelaren zirrikituen artean dago. Zure gailua berrezarri egingo da eta pantaila nagusia erakutsiko du.



Halaber, berrezartze osoa egin daiteke. **Hardwarearen berrezartze osoa egin ondoren, gailuak lehenetsitako balioak hartzen ditu hots, erosi eta lehen aldiz piztean zegoen moduan.** Windows Mobile® eta aurrez instalatutako gainerako programak bakarrik geratuko dira.

Hardwarearen berrezartzeari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikusi “Organización del dispositivo” atala Erabiltzailearen Gidaliburuan.

O sasunari buruzko informazio garrantzitsua eta segurtasun- neurriak

Produktu hau erabiltzean, segurtasun-neurri hauek hartu behar dira kontuan, ardura eta kalte legalik ez izateko.

Gorde eta kontuan izan produktuaren segurtasun- eta erabilera-argibide guztiak. Produktua erabiltzeko argibideetan dauden abisu guztiak bete.

Kontuan izan ohar hauek kalte pertsonalak sortzeko arriskua, deskarga elektrikoaren eta suteen arriskua eta ekipoari kalteak sortzeko arriskua murrizteko.

SEGURTASUN ELEKTRIKOA

Produktu hau eginda dago bateriak edo adierazitako elikatze-iturriak emandako energia erabiltzeko. Bestela erabiltzea arriskutsua izan daiteke, eta produktu honi emandako edozein onarpen baliogabetzen du.

LUR-HARTUNEA ZUZEN KONEKTATZEKO SEGURTASUN-NEURRIAK

OHARRA: ekipoaren lurrerako konexioa behar bezala ez badago, deskarga elektrikoak izan daitezke gailuan.

USB kable bat du produktu honek, mahai gaineko ordenagailu batera edo ordenagailu eramangarri batera konektatzeko. Egiaztatu zure ordenagailua lurrera zuzen konektatuta (jarrita) dagoela produktua ordenagailuan konektatu aurretik. Mahai gaineko ordenagailu baten edo ordenagailu eramangarri baten elikatze-iturriko kableak eramailea eta lurrerako entxufea ditu. Tokiko kodeen eta araudien arabera ongi instalatuta eta lurrera konektatuta dagoen hartune bati konektatu behar zaio entxufea.

ELIKATZE-UNITATERAKO SEGURTASUN-NEURRIAK

- **Kanpoko elikatze-iturri egokia erabili**

Produktuak sailkapen elektriko etiketan adierazitako elikatze-iturri motarekin bakarrik funtzionatu behar du. Ziur ez bazaude zein energia-iturri mota behar den, galdetu zerbitzuen hornitzaile baimenduari edo tokiko konpainia elektrikoari. Bateriarekin eta bestelako iturriekin funtzionatzen duen produktuaren kasuan, kontsultatu produktuarekin batera emandako operazio-argibidea..

- **Bateria-paketeak kontuz maneiatu**

Gailuak litio-ioizko bateria du. Bateria modu desegokian erabiliz gero, sua eta erredurak izateko arriskua dago. Ez saiatu bateria-paketea irekitzen edo konpontzen. Ez desmuntatu, presionatu, zulatu, kanpoko kontaktuen edo zirkuituen zirkuitulaburra egin, sutara edo uretara bota, ezta bateria 60 °C (140°F) baino tenperatura handiagoz izan



OHARRA: eztanda-arriskua egon daiteke bateria ez bada zuzen jartzen. Sua edo erredurak izateko arriskua murrizteko, ez desmuntatu, zapaldu edo zulatu kanpoko kontaktuak edo zirkuituak; halaber, ez eduki 60 °C-tik (140 °F) gorako Tenperaturetan, eta ez bota sutara edo uretara. Dagokion bateriarekin ordezkatu. Birziklatu edo bota erabilitako bateriak tokiko arauen arabera, edo produktuarekin batera emandako erreferentziaren gidaren arabera.



- **Neurri hauek ere hartu:**

- Eduki bateria eta gailua toki lehorrean, uretatik eta beste edozein likidotatik urrun, zirkuitulaburrik gerta ez dadin.
 - Eduki metalezko objektuak urrun, bateriarekin edo konektoreekin kontaktua sor ez dadin eta funtzionatzen ari dela zirkuitulaburrik gerta ez dadin..
 - Ez erabili hondatuta edo deformatuta dagoen edo kolorea galdua duen bateriarik, ez eta kanpotik herdoiltuta edo gehiegi berotuta dagoenik edo usain txarra duenik ere.
 - Ez eduki bateriarik haurtxoen edo ume txikien eskueran, irents ez dezaten. Bateria irentsiz gero, joan berehala medikuarengana.
-

-
- Bateriak ihesak baditu:
 - Likidoak ez ditu ukitu behar ez azala ez eta arropa ere. Ukituz gero, garbitu berehala kaltetutako azal-eremua ur garbiarekin eta eskatu laguntza medikuari.
 - Likidoak ez ditu begiak ukitu behar. Ukituz gero, EZ igurtzi; garbitu berehala kaltetutako eremua ur garbiarekin, eta eskatu laguntza medikuari.
 - Hartu neurri osagarriak bateriaren likidoa sutatik urrun edukitzeko; izan ere, lehertzeko edo sua hartzeko arriskua dago.

EGUZKIAREN ZUZENENKO ARGIAKI DAGOZKION SEGURTASUN-NEURRIAK

Produktua gehiegizko hezetasunetik eta muturreko temperaturatik babestu. Ez utzi produktua edo bateria ibilgailu baten barnean edo temperatura 60 °C (140°F) baino gehiagokoa izan daitekeen lekuetan, esaterako, autoaren aginte-mahaian, eguzkiaren edo argi ultramore gogorraren eraginpean izan daitekeen tokian, leihoaren edo kristal baten atzean denbora luzez. Horrek produktua kaltetu dezake, bateria gehiegi berotu edo ibilgailuarentzat arriskutsua izan daiteke.

ENTZUMEN-GALERAREN PREBENTZIOA



OHARRA: entzumena gal dezakezu audiofonoak edo entzungailuak denbora luzean ozenegi jartzen badituzu.

NOTA: Frantzian, gailu honentzako audiofonoak (ondoren adieraziko dira) ebaluatu egin dira presio akustikoaren maila betetzeko, horri buruzko estandarretan azaltzen denez: NF EN 50332-1:2000 eta/edo NF EN 50332-2:2003, Frantziako L. 5232-1 artikulua arabera.

- HTC-k egindako audiofona, HS S300 modelo.

HEGAZKINETAKO SEGURTASUNA

Produktu honek hegazkinaren nabigazio-sistemarekin eta horren komunikazio-sarearekin izan ditzakeen interferentziak direla eta, herrialde askotan, legearen kontrakoa da gailu honen telefono-funtzioa hegazkinean erabiltzea. Gailua hegazkinean zoazela erabili nahi baduzu, itzali telefona eta aldatu Hegazkin modura.

INGURUMEN-MURRIZTAPENAK

Ez erabili produktu hau gas-estazioetan, instalazio kimikoetan edo eraisketa-operazioak egiten ari diren lekuetan, ezta ingurune leherkorretan ere (adibidez, horniketa-eremuak, erregai-deposituak, itsasontzi-bizkarren azpialdeak, instalazio kimikoak, produktu kimikoak edo erregaiak lekuz aldatzeko edo biltegitratzeko instalazioak eta airean produktu kimikoak edo partikulak —adibidez, pikorrak, hautsa edo hauts metalikoa— dituzten eremuak). Mesedez, kontuan izan eremu horietan txinpartek eztandak edo suteak eragin ditzaketela, eta horiek lesioak eta heriotza eragin dezakete.

ATMOSFERA LEHERGARRIAK

Atmosfera lehergarria edo material sukoiak dituen eremuan bazaude, produktua itzali egin behar da eta erabiltzaileak seinale eta argibide guztiak jarraitu beharko lituzke. Eremu horietan, txinpartek leherketak edo suteak eragin ditzakete, eta, ondorioz, jendea erre edota hil egin daiteke. Erabiltzaileei gomendatzen zaie ekipoa ez erabiltzeko gasa edo erregaiak hornitzeko estazioak bezalako tokietan, eta gogoratu behar da erregai-gordailuetan, instalazio kimikoetan edo eraisketa-operazioak egiten diren lekuetan irrati-ekipoak erabiltzeari buruzko mugak bete behar direla. Lehergaiak egon daitezkeen guneak gehienetan argi adierazita daude, baina ez beti. Horien artean daude erregaiak hornitzeko eremuak, ontzien estalkiaren azpikoak, erregaiak edo gai kimikoak transferitzeko edo gordetzeko instalazioak eta area, hautsa edo metal-hautsa dagoen tokiak.

BIDE-SEGURTASUNA

Ibilgailu-gidariekin ezin dituzte eskuko gailuak dituzten telefono-zerbitzuak erabili, larrialdikasuan izan ezik. Herrialde batzuetan esku libreko gailuak erabil daitezke ordezko gisa.

IRRATI-MAITZASUNAREN ENERGIAREKIKO ESPOSIZIOARI BURUZKO SEGURTASUN-NEURRIAK

- Ez erabili telefona metalezko egituretatik gertu (esaterako, eraikin baten altzairuzko egitura).
 - Ez erabili zure telefona iturri elektromagnetiko bizietatik gertu, besteak beste, mikrouhin-labeak, bozgorailuak, TB edo irratia.
-

-
- Fabrikatzaileak onartutako jatorrizko osagarriak edo metalik ez dutenak bakarrik erabili.
 - Fabrikatzaileak onartu ez dituen eta jatorrizkoak ez diren osagarriak erabiltzeagatik, baliteke tokiko irrati-maiztasunen energia-esposizioari buruzko direktibak ez betetzea, eta, beraz, ez da halakorik erabili behar.

EKIPAMENDU MEDIKOEN FUNTZIOEKIN GERTATUTAKO INTERFERENTZIAK

Produktu honek kalte egin diezaioke ekipamendu medikoen funtzionamenduari. Ospitale eta klinika mediko gehienetan, debekatuta dago gailu hau erabiltzea.

Bestelako gailu medikoren bat erabiltzen baduzu, jarri harremanetan horren fabrikatzailearekin, kanpoko irrati-maiztasunen energia-iturrietatik ongi babestuta dagoen jakiteko. Baliteke zure sendagileak informazio hori eskuratzen laguntzea.

ITZALI telefonoa berehala instalazio medikoetan, gune horietako arauak hala adierazten dutenean. Ospitaleek edo instalazioek kanpoko irrati-maiztasunen energia-iturriekiko sentikorra den ekipamendua erabiltzen dute batzuetan.

AUDIOFONOAK

Haririk gabeko zenbait terminal digitalet interferentziak eragin ditzakete audiofono jakin batzuekin. Interferentziarik gertatzen bada, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin edo deitu bezeroen arretarako zerbitzu-lineara, bestelako aukerak bilatzeko.

ERRADIAZIO EZ-IONIZATZAILEA

Telefonoak barne-antena du. Produktu hau gomendatutako funtzionamendu arruntaren arabera erabili behar da, erradiazioen errendimendua eta interferentziaren segurtasuna bermatzeko. Irrati-uhinen transmisio mugikorrerako beste ekipo batzuekin gertatzen den moduan, ez egon antenatik gertu ekipoa funtzionatzen ari dela, ekipoak ongi funtziona dezan eta pertsonen segurtasuna berma dadin.

Erabili bakarrik telefonoarekin emandako antena. Baimendu gabeko edo aldatutako antenak erabiltzeak murriztu egin dezake deiaren kalitatea eta, hala, telefonoa hondatu, errendimendua gutxitu eta gomendatutako SAR mugak gaindi ditzake. Horrez gain, herrialdeko tokiko arauak ez betetzea ere ekar dezake horrek..

Zure telefono mugikorrek errendimendu egokia izan dezan eta pertsonak IM energiaren eraginpean egoteari buruzko arauak betetzen direla bermatzeko, erabili beti gailua dagokion posizio arruntean. Ez ukitu antena eta ez eutsi telefonoari antenatik dei bat eginen edo jasotzen duzunean. Antena ukitzeak murriztu egin dezake deiaren kalitatea, eta gailua behar baino energia gehiago erabiliz funtzionatzen aritzea eragin dezake. Telefonoa ERABILTZEN ari zarela antena ukitzen ez baduzu, antenaren funtzionamendua eta bateriaren iraupena optimizatzen dira.



Neurri orokorrak

- **Ez eragin presio handiegirik gailuari**
Ez jarri gauza pisutsurik gailuaren gainean, eta ez egin presio handirik ere horren gainean, gailua ez hondatzeko eta ukipen-pantaila ez distortsionatzeko. Gailua ez eraman luzaroan poltsiko barruan.
- **Gailua luzaroan erabiliz gero, berotu egiten da**
Denboraldi luzean erabiliz gero, gailua berotu daiteke, adibidez: telefonoz hitz egiterakoan, bateria kargatzerakoan edota web-a arakatzerakoan. Gehienetan egoera arrunta da eta, beraz, ez da gailuaren arazotzat hartu behar.
- **Errepara iezaiezu konponketa-markei**
Operazioari edo zerbitzuari buruzko dokumentazioko beste atal batean azaltzen denean izan ezik, ez zaitez saiatu produktua konpontzen. Gailuaren barneko osagaiak baimendutako teknikariak edo hornitzaileak konpondu behar ditu.

- **Konpondu beharreko kalteak**

Produktuaren entxufeak kendu eta eska iezaiozu baimendutako teknikariari edo hornitzaileari konpontzeko, hauetakoren bat gertatzen denean:

- Produktuaren barrura likidoa isuri edo objekturen bat erori da.
- Produktua euritan edo uretan egon da.
- Produktua erori edo hondatu egin da.
- Gehiegi berotu denaren itxura du.
- Funtzionamendu-argibideei jarraituta produktua ez dabil behar bezala.

- **Saihestu leku beroak**

Produktua bero-iturrietatik urruti egon behar da: erradiadoreak, bero-erregistratzaileak, berogailuak eta beroa sortzen duten bestelako gailuak (anplifikadoreak barne).

- **Saihestu leku hezeak**

Ez erabili inoiz produktua leku hezeetan.

- **Ez erabili gailua tenperatura-aldaketa bortitza gertatu ondoren**

Zure gailuak tenperatura-aldaketa handiak eta/edo hezetasuna jasan behar badu, lurruna sor daiteke gailuan edo horren barruan. Gailuak kalterik izan ez dezan, erabili aurretik hezetasuna lurruntzeko behar den denbora utzi..

OHARRA: Gailua tenperatura baxua duen lekutik altuagoa duen lekura mugitzean, edo tenperatura altuko ingurunetik hotzagara eramatean, utzi gailua tenperatura berrira egokitzen piztu aurretik.

- **Ez sartu objekturik produktuan**

Ez sartu objekturik produktuaren karkasaren zirrikituen edo bestelako irekiduren barruan. Zirrikitu eta irekiduren bidez, aireztatu egiten da unitatea. Ez estali edo oztopatu unitatea hozten duten sargune horiek.

- **Muntatzeko osagarriak**

Ez erabili produktua mahai, orga, apal, tripode edo euskarri ezegonkor batean. Produktua muntatzeko fabrikatzailearen argibideei jarraitu eta fabrikatzaileak gomendatutako muntaia-osagarria erabili beharko litzateke.

- **Ez muntatu toki ezegonkorretan**

Ez jarri produktua oinarri ezegonkor batean.

- **Onartutako ekipoarekin erabili produktua**

Produktua ordenagailu pertsonalekin eta ekipoarekin erabiltzeko egokitzat onartutako aukerako gailuekin bakarrik erabil daiteke.

- **Doitu bolumena**

Jaitsi bolumena entzungailuak edo beste audio-gailu bat erabili aurretik.

- **Garbiketa**

Garbitu behar duzunean, deskonektatu produktua korrante-hartunetik. Ez erabil garbigarri likidorik ez aerosolik. Erabili zapi heze bat, INOIZ EZ erabili urik LCD pantaila garbitzeko.

Entitate arautzailearen identifikazioak

Arauk identifikatzeko, **BLAC100** modelo-zenbakia du zure produktuak.

Gailuak modu fidagarri eta seguruan funtziona dezan ziurtatzeko, ez erabili ondorengo zerrendatik kanpoko osagarririk (**BLAC100** dute).

BLAC160 modelo-zenbakia du bateriak.

Oharra 2. klaseko elikadura-iturri batekin erabiltzeko da produktu hau; korrante zuzeneko 5 volt-eko sailkapena izan behar du, eta gehienez 1 A-ko elikadura-iturria.

Telekomunikazioen eta Interneten Elkarte (TIA)

Segurtasun informazioa

Taupada-markagailua

Osasunerako Produktuen Fabrikatzaileen Elkarteak (Health Industry Manufacturers Association) gomendatzen du gutxienez 15 cm-ko tartea uztea haririk gabeko telefonoen eta taupada-markagailuen artean, interferentziak saihesteko. Aholku horrekin bat egiten dute ikerketa independenteek eta haririk gabeko teknologien gaineko ikerketek (Wireless Technology Research). Taupada-markagailua duten pertsonentzako oharrak:

- Taupada-markagailutik 15 cm-ra izan behar dute telefono mugikorra BETI, PIZTUTA badago.
- Ez eraman telefonoa bularraldeko sakeletan.
- Erabili taupada-markagailuaren kontrako aldeko belarrian, interferentzien arriskua ahalik eta gehiena murrizteko. Interferentziaren bat gertatzen ari delako susmoa baduzu, ITZALI telefonoa berehala.

Audiofonoak

Haririk gabeko zenbait terminal digitalek interferentziak eragin ditzakete audiofono jakin batzuekin. Interferentziarik gertatzen bada, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin edo deitu bezeroen arretarako zerbitzu-lineara, bestelako aukerak bilatzeko.

Beste gailu mediku batzuk

Bestelako gailu medikoren bat erabiltzen baduzu, jari harremanetan horren fabrikatzailearekin, kanpoko irrati-maiztasunen energia-iturriekiko ongi babestuta dauden jakiteko. Baliteke zure sendagileak informazio hori eskuratzen laguntzea.

ITZALI telefonoa berehala instalazio medikoetan, gune horietako arauak hala adierazten dutenean. Ospitaleek edo instalazioek kanpoko irrati-maiztasunen energia-iturriekiko sentikorra den ekipamendua erabiltzen dute batzuetan.

WEEEren oharra

Ekipo Elektriko eta Elektronikoen Hondakinei buruzko Direktibak (WEEE) —2003ko otsailaren 13an sartu zen indarrean Europako lege gisa — aldaketa handia eragin zuen ekipo elektrikoaren bizitza amaierako tratamenduan.

Direktiba horren helburua WEEEren prebentzioa da, eta, gainera, hondakinen berrerrabilpena, birziklatzea eta berreskuratzeko beste modu batzuk erabiltzea aintzat hartzen ditu ahalik eta gutxiena ezabatu behar izateko.



Produktuan edo haren kutxan WEEE logotipoa (ezkerrean ageri dena) agertzeak esan nahi du produktua ez dela bota behar etxeko gainerako zaborrekin batera. Zure ardura da ekipo elektriko eta elektronikoen guztien hondakinak behar den tokian — hondakin arriskutsu horiek birziklatzeko gunean — uztea. Ekipo elektronikoak banaka biltzea eta ezabatzeko unean behar bezala berreskuratzea lagungarria da baliabide naturalak zaintzeko. Gainera, ekipo elektroniko eta elektrikoaren hondakinak behar bezala birziklatuz gero, gizakien osasuna eta ingurumenaren segurtasuna bermatzen dira. Hondakin elektrikoak eta elektronikoak botatzeari eta berreskuratzeari buruz eta biltzeko guneei buruz informazio gehiago behar izanez gero, jarri harremanetan udaleko arduradunekin, etxeko hondakinak biltzeko zerbitzuarekin, ekipoa erosi zenuen dendarekin edo unitatearen fabrikatzailearekin.

RoHS betetzea

Produktu honek betetzen du 2002/95/EE direktiba, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2003ko urtarrilaren 27an onartua, eta haren zuzenketak; zenbait substantzia arriskutsu ekipo elektriko eta elektronikoetan (RoHS) erabiltzeko murrizketei buruzkoa da direktiba hori.



2008ko Kudeaketaren Kalitatearen
Urrezko Q saria



Q Oro Premio a la Calidad de
Gestión 2008